

RESPE TO FUNDAZIOA EGOKI GOBERNATZEKO KODEA

1. Sarrera

Fundazioak egoki gobernatzeko, eraginkortasunez erabili behar dira haien aktibo materialak eta ez-materialak, hori baita haien sorrerako helburuak betetzeko bidea.

Jardun-modu hori izango da, beraz, Respeto fundazioaren ekintzaren abiapuntua, eta, horren harian, argi du gobernurako jardunbide onak bereganatu behar dituela, bai bere sorrerako helburuak betetzeko, bai bere eginkizun soziala sustatzeko. Alde horretatik, jokabide gardena izateko konpromisoa hartzen du, zerbitzatzen duen komunitateak harekiko aitortpena eta konfiantza indartu eta sendotu dezan.

Hori horrela, Respeto Fundazioa Egoki Gobernatzeko Kode hau onartzen du patronatuak, eta bertan biltzen dira irabazi asmorik gabeko erakundeak egokitasunez zuzentzeko ematen diren aholku edo gomendio behinenak, batetik, eta fundazioen gizarte-erantzukizuneko printzipioak, bestetik.

2. Xedea edo egitekoa eta helburuak

Fundazioaren xedea da artea - errespetua sinergiaren bidez ERRESPETUAREN kontzeptua zabaltzea eta erakustea, eta hura erlijioan, kulturean, ideologian eta gainerako giza adierazpenetan biltzen saiatzea. Hori horrela, gizabanako, gizarte-talde eta erakunde guztiak engaiatu nahi dira lantegi edo egiteko horretan.

Haren estatutuek diotenari erreparatuta, hau da Respeto fundazioaren xedea:

- a) Artearen bidez, Errespetua zabaltzea, sustatu eta bultzatzea.
- b) "Respeto Fundazioa Artelan" erakundea iraunaraztea eta zabaltzea.
- c) Errespetua sustatzea, joera ideologiko, politiko, erlijioso eta sexual askotariko pertsona eta taldeen arteko harremanaren ezinbesteko eta utziezinezko oinarria den aldetik, giza taldeen arteko elkar ulertzeak garapena eta justizia soziala susta ditzan eremu guztietan.
- d) Pertsonen oinarrizko eskubideak sustatzea.
- e) Egoera ahulean eta baztertuta dauden gizarte-sektoreek jarduera artistikoetan parte hartzea, gizarteratzeko bide berri bat irekitzeko artearen bidez, eta lantaldeak osa daitezen bultzatzea, ardurak konpartitzeko modu berritzailea izan dadin.

3. Gobernu onaren printzipio orokorrak

Fundazioko patronatuak eta haren laguntzaileek fundazioaren misioari eta helburuei erreparatuko diete haien eginkizunak betetzean, fundazioaren estatutuak arautzen duena beteko dute eta aintzat hartuko du unean-unean lantzekoa izan daitekeen funtzio soziala.

Fundazioaren helburuak betetzeko lanetan, hertsiki beteko dira unean-unean indarrean dauden eta betetzekoak diren legeak.

Patronatuak xede bateratu batez jokatu du beti, eta haren egiteko nagusia izango da fundazioaren urteko ekintza-plana onartzea eta fundazioaren helburuak eta gizarte-eginkizuna betetzen direla zaintzea.

“Respeto Fundazioa Artelan” erakundea iraunarazteko eta zabaltzeko lanen zaindari izango da Patronatua.

Patronatuak zuzendu eta bideratu du Fundazioak komunikabideekiko izango duen jardun-estrategia, bere xedea eta emaitzak jakinarazi eta azaltzeko.

Fundazioak bere helburuak betetzeko baliabide egokiak dituela ziurtatuko dute patronatuko kideek.

Patronatuko kideek informazio-gardentasunaren printzipioa bete behar dute, eta, bereziki, informazio gardena eman behar dute fundazioaren diru-funtsen, jardueren eta emaitzen gainean.

4. Antolamendua

Fundazioaren estatutuek arautzen dute zer osaera, antolamendu eta funtzionamendu izan behar duen patronatuak. Azken horrek fundazioaren misio edo xedea betetzen dela zainduko du, haren estrategia zuzendu eta bideratuko du, eta haren jarduerak gauzatzeko modua ikuskatuko du.

Fundazioaren zuzendaritzako, ordezkapeneko eta administrazioko organoa da patronatua. Haren eginkizuna izango da fundazioaren ondareko ondasunak eta eskubideak administratzea eta haien errendimendu eta erabilgarritasun osoari eustea, fundazioaren helburuak lortzeko.

Estatutuek arautzen dituzten mugen baitan, haren funtzionamendu eraginkorra bermatuko duen kide-kopuru bat izango du patronatuak. Patronatuko kideek erabakiak hartzean irizpide burujabeak izango dituztela bermatzeko aukera emango duen kopurua izango da.

Legeak eta estatutuek araututako eskumen edo egitekoak izango ditu patronatuak, eta, bereziki, honako hauek:

a) Fundazioa behar bezala administratzeko eta zuzentzeko egoki irizten dituen jarduerak egin eta xede horretarako erabakiak hartzea, fundazioaren estatutuak eta betetzekoak diren legeak betez.

b) Araudi osagarri batez interpretatzea eta garatzea fundazioaren estatutuak, haren egiturari, antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko barne-arauak inplementatuz.

c) Urteko planak, jarduerakoak, komunikazioak edo edozein jarduera egitekoak onestea, eta, noski, haiek betetzeko modua ikuskatzea.

- d) Fundazioko patronatu-kidea izendatzea eta kargugabetzea.
- e) Fundazioak egin dituen lanen kalitatea, patronatuko presidentearen lana eta patronatu-kideen lana ebaluatuko duen txosten bat egitea urtero.
- f) Komunikazio-politika onestea, gardentasun-printzipioaren harian.

Hauek izango dira patronatuko presidentearen egitekoak:

- a) Fundazioaren ordezkari gorena izatea pertsona, agintari eta erakunde publiko nahiz pribatu guztiekiko.
- b) Patronatuak eratzen dituen batzordeak eta lantaldeak edo fundazioaren estatutuetan arautzen direnak koordinatzea.
- d) Patronatuak urtero onartuko duen jarduera plana betetzea eta kudeatzea, eta horixe bera egitea patronatuak hartzen dituen erabakiekin.

Hauek izango dira presidenteordearen egitekoak:

- a) Presidentearen ordezkari izatea hura bere eginkizunak bete ezinean dagoen egoeretan.

Hauek dira patronatuko idazkariaren egitekoak:

- a) Patronatua deitzea, idatziz eta presidenteak aldeaz aurretik deialdi hori ontzat eman ondoren (haren onespenez gabe egin daiteke presazko edo antzeko egoeretan). Bilerako gai-zerrenda adieraziko da deialdian.
- b) Patronatu-kideek bileretako gai-zerrendetan aztertuko diren gaiei buruzko nahikoa informazio izango dutela ziurtatzea.
- c) Zaintzea nahitaez betetzekoak diren legeak eta erregelamenduek arautzen duten moduan, edo, kasuan kasu, doktrinak edo jurisprudentziak arau horiei buruz egiten duten interpretazioaren arabera betetzen direla patronatuaren jarduerak eta erabakiak.
- d) Patronatuaren jarduerak eta erabakiak fundazioaren estatutuen eta patronatuak berak estatutu horiek garatzeko ematen dituen arauen arabera direla zaintzea.
- e) Patronatuko bilerak akta-liburuetan jasotzea eta dokumentazio hori gordetzea.

Patronatuko kide guztiek eta ohorezko presidentek pertsonan bertaratu behar dute patronatuko bileretara, baina patronatuko beste kideren batengan eskuordetu dezakete haien ordezkaritza, behar bezala justifikatutako egoeretan.

Patronatuaren saio edo bileretara bertaratzen diren pertsona guztiek erabateko isilpean gorde behar dituzte aztertutako gaiak eta gai horiek aztertzean izan diren

hizketaldiak. Erabakiak bete edo babestu behar dituztenek soilik eman dezakete hartutako erabakien berri, erabaki horien hartzaile izan behar dutenei. Horrez gainera, hirugarrenekin horrela hitzartu bada, isilpean gorde behar dituzte haiekin landu edo egin diren akordioak, hitzarmenak eta elkarrizketak.

Patronatuko kideek gogoz parte hartu behar dute patronatuaren bileretan, eta prestutasunez hartu eta bete behar dituzte haien karguari dagozkien lanak, eginkizunak eta mandatuak, patronatuak haien gain utzitakoak.

Patronatuko kideek aurkatu egin behar dituzte fundazioaren estatutuak, fundazioak arautzeko legeak eta erregelamenduek eta kode honek eta berau garatzeko ematen diren arauak arautzen dutena urratzen duten erabaki guztiak.

Patronatuko kideek sekretupean izan behar dituzte haren karguagatik jakiten dituzten fundazioari buruzko datuak eta informazioa, eta ezingo dute haien erabilera zuzen edo zeharkakorik egin, haietzako onura edo abantaila partikularrak lortzeko.

Fundaziotik kanpoko interesek ezin dute patronatuko kideen jardunbidea baldintzatu.dute patronatuko kideen jardunbidea baldintzatu.

Patronatuko kideek fundazioari jakinarazi behar diote zer interes-gatazka sor daitezkeen fundaziotik kanpo egiten dituzten jardueren ondorioz edo eman daitezkeen bestelako arrazoien ondorioz.

Patronatuko kideek ez dute parte hartu behar haien interes partikularra jokoan dagoen gairen bateko eztabaidetan edo bozketetan.

Patronatuko kideek ez dute alferrikako gasturik egin behar fundazioaren kudeaketa arruntean eta fundazioaren inbertsioetan.

Patronatuko kideek ezin dute fundazioaren ondasunen eta eskubideen erabilera partikularrrik egin.

Patronatuko kideek ezin dute haien karguaren ondorioz jakiten duten informazioaren onurarik jaso, baldin eta informazio hori interesgarria bada fundazioarentzat edo hari kalte egin badakioke.

5. Kargua betetzeagatiko ordainsariak

Patronatuko kideek doan beteko dute beren kargua, eta haien eginkizunak betetzeagatik egin beharrekoak dituzten gastuen ordaina jasotzeko eskubidea izango dute, haiek behar bezala justifikatu ondoren.

Patronatuko kideek ordainsari bat jasotzeko eskubidea baldin badute beren karguari datxezkien eginkizunak bete edo jarduerak egiteagatik, printzipio hauei lotua geratuko da ordainsari hori:

Ordainsariak ezingo du inoiz ere izan ohikoa edo arrazoizkoa dena baino handiagoa, elkargo profesionalen arauari edo merkatuko prezioari erreparatuta.

Ezingo da kontratu blindaturik egin, hau da, ezingo da iraupen, ordainsari edo kalte-ordain jakinik bermatzen duen kontraturik egin.

Zerbitzuak haiek eman ondoren ordainduko dira beti, edo zerbitzu horiek emateko epe ohikoa amaitu ondoren.

6. Informazio-gardentasuna

Fundazioaren web-orria da haren gardentasun-politikaren tresna nagusia. Haren bidez, egindako jardueren berri emango die fundazioak jendarteari eta harekin lotura zuzena duten hirugarrenei. Era berean, fundazioak egingo dituen jarduerak ezagutarazteko eta haietan parte hartzeko bidea izango da, eta fundazioaren helburuak eta printzipioak hedatzeko.

Patronatuak unean-unean erabaki dezake zer informazio emango den web-orrian, baina orri horrek honako informazio hauek emango ditu gutxienez:

- a) Respeto fundazioa egoki gobernatzeko kodea.
- b) Haren jardueren memoriak.

Fundazioaren helburuak lortzeko interesa duten gizarte-talde guztiekin harreman zuzena eta etengabea izateko ahalegin guztiak egingo ditu fundazioak, eta, horretarako, sare sozialak baliatuko ditu.

7. Egoki gobernatzeko kodea eguneratzea eta aldatzea

Patronatuak bere gain hartzen du kode hau eguneratzeko konpromisoa, hura fundazioaren unean uneko egoerara eta indarrean diren arauetara egokituko dela ziurtatzeko.

Patronatuko edozein kidek proposa dezake kode honen aldaketa osoak edo partzialak egitea. Aldaketen testua jaso behar dute proposamenei eta aldaketak justifikatzeko memoria bat. Patronatura bertaratutako edo ordezkari bidez jardundako kide guztien gehiengoz hartu behar dira aldaketa-proposamenei buruzko erabakiak.